# CORTO MALTESE

Hugo Pratt

## Itsaso gaziaren balada bat



ASTIBERRI



OZEANO BAREA NAUZUE, INON DENIK HANDIENA. HALA ESATEN DIDATE ASPALDITIK, BAINA EZ DA EGIA BETI NARE NAGOENIK. ALDIZKA ERRETXINDU, ETA JO ETA HAUTSIAN HASTEN NAIZ GUZTIEN ETA GUZTIAREN KONTRA. ORAIN BEREAN LASAITU BERRIA NAIZ AZKEN KASKETALDIAZ. EGINGO NUKE ATZO HIRUZPALAU UHARTE GARBITU NITUELA, ETA BESTE HAINBESTE INTXAUR-OSKOL BIRRINDU, GIZAKIEK ITSASONTZI DEITZEN DITUZTEN HORIETAKOAK... HONAKO HAU...
...BAI, HEMEN BEGI-BISTAN DUZUEN HONEK EZ DAKIT NOLA EGIN DIDAN ISKIN. AGIAN RASPUTIN KAPITAINAK EDERKI DAKIELAKO LANBIDEAREN ANTZEA ETA HAREN MARINELAK FIJI UHARTEETAKOAK DIRELAKO. EDO AGIAN ITUNA EGINA DUTELAKO DEABRUAREKIN. BAINA HORREK ORAIN EZ DIGU ARDURA. GAUR "TAROWEAN" DA, USTEKABEEN EGUNA. DOMU SANTURU EGUNA, 1913KO AZAROAREN 1A.
ZER DUGU?
HIRDMAY!... TXALUPA BAT...
PETE ATEATEA! GIZON ZURIAK...
EVARUA-T-EATUA. BI NAUFRAGO DIRA!
HILIK?
AINE... BI GAZTE... BAT, EMAKUMEA; BESTEA, GIZONA.
HILIK EZ. LO...
DEITU KAPITAINARI!
UF!
KAPITAIN, BI NAUFRAGO JASO DITUZTE ONTZI-GAINEAN.


L. A. de Boug
Voyage autou du mon
par la Frégate du
ZER?
NORK ESAN DIK GELDITZEKO? ALDE HEMENDIK, ERGEL HALAKOA!
BAINA, ZER GERTATZEN DA HEMEN? ZER DA HAU...
HAIEK GAZTE ZURIAK, KAPITAIN; HAIEK GAIXORIK...
TXALUPAK AMSTERDAMEKO NESKA IZENA DU. HALA DEITUKO ZEN ITSASONTZIA...
HARA! AMSTERDAMEKO NESKA, ADITUA DIAT, BAI... GOLETA EDERRA, ABERASKUMEENA...
BAINA, ZER ARRAIO EGIN BEHAR DUT NIK BI HORIEKIN?
HOBE GUREKIN EDUKITZEA...
SENIDE ABERATSAK BADITUZTE, DIRUTZA ORDAINDUKO DUTE BION TRUKE. EZ AL ZAIZU IRUDITZEN, KAPITAIN?
BAI... AGIAN ARRAZOI DUK. ONGI, ERAMAN BARNERA ETA SENDATU.


VON SPEEKEREKIN ELKARTZEN GARENEAN, AHALEGINA EGIN BEHARKO DIAGU IKUS EZ DITZAN...
BESTELA BABESPEAN HARTUKO LITIZKEK ETA ORDUAN AKABU ERRESKATEA...
AURRERA! NORABIDE BEREAN EGINGO DIAGU AURRERA, KAISERINE ALDERA.
OZEANO BAREA
ALMIRANTEGOAREN UHARTEAK
IRLANDA BERRIA
BISMARCK ARTXIPELAGOA
UHARTE HAUETAKO INDIGENAK KANIBALAK DIRA
GINEA BERRIA
KAISERINE
WILHELMS-LANDEKO MENDIA
LUR HAUEK ESPLO-RATU GABE DAUDE
POMERANIA BERRIA
SALOMON UHARTEAK
PAPUAKO GOLKOA
HEMEN, 155° MERIDIANOAREN ETA 6° HEGO PARALELOAREN ARTEAN, RASPUTIN KAPITAINAK BI GAZTE AURKITU ZITUEN, JITOAN ZEBILTZALA
CARPENTARIA GOLKOA
KORAL ITSASOA
LOUISIADE UHARTEAK
YORK LURMUTURRA
AUSTRALIA
KATAMARANAK BIDAIA LUZEAN AURRERA EGITEN DU, KAISERINE IZEN ALEMANA DUEN LEKU BATERANTZ.
KATAMARANAREN BARNEAN...
BAINA, NON... CAIN... CAIN...


CAIN!... NON NAGO?
ORAIN ETORRI ZAIDAN BURURA... SUTEA... NAUFRAGIOA... BAINA CAIN ALDAMENEAN NINAN... NON EGONGO OTE DA?
KATAMARAN BATEAN NAGON ETA INDIGENEK SOLDADUEN ITXURA DITEN...
...ZER?!!
SOCK!
URDE KABROIA, NOLA AUSARTU ZARA? NIK...
KATEME BASA ALAENA! KASKOA HAUTSI DIDAN...
URRUNDU NIGANDIK!
HORI DUN ESKER ONA EMATEKO MODUA...
...BIOI BIZIA SALBATZEA-GATIK!
ORDUAN... CAIN ONIK AL DA?
CAIN? HARA! HALA DEITZEN AL DA MUTIKOA?... BAI, ONGI ZEGON!
PAMPAREM-BA... PAMPAREMBA.


RASPUTIN KAPITAINA... ZATOZ GORA, BIZKOR, PAMPAREMBA.
DEIKA DITINAT... BITARTEAN, TO! HIK ERE EDERKI IKASIKO DUN HEMEN NERONEK DUDALA AGINPIDEA...
SOCK!
TATAPE... BEGIRATU BEGI HANDIAREKIN. GIZON BAT DAGO HAN.
GIZON BAT?...
EA, BA, IKUS DEZAGUN. HMM... EZ DUK NAUFRAGOA, BAINA. LEPOA EGINGO NIKEK BADAKIDALA NOR DEN!
BATERE ZALANTZARIK EZ, CORTO MALTESE DUK. ZER GERTATUKO ZEN HAREN ONTZIAREKIN?
MATXINADA, KAPITAIN!
PARADA EZIN HOBEA HONAKO HAU HARTATIK LIBRATZEKO, EZTA, KAPITAIN? LASTIMA MONJEA BAT EZ ETORTZEA HORREKIN.
GEHIEGI DANTZATZEN DUK MINGAINA, CRANIO. EGUNEN BATEAN AHOTZAR HORI ITXIKO DIAT!
EI, CORTO! ZER GISA? EGUZKIA HARTZEN, ALA?...
BABO MADARIKATUA, NOREKIN ETA HIREKIN TOPO EGIN BEHAR!


NOIZTIK HAGO HORRELA?...
BART ARRATSETIK...
AIZAK, ATERA NAZAK HEMENDIK ETA GERO EGINGO DIAGU HITZ-ASPERTUA...
EZ ZEKIAT, BA, AZKEN BATEAN EZ HAUT BATERE GOGOKO.
HOR UTZIKO AL HAUT...
MONJEAK BEHIN ERE EZ DIK BARKATUKO!
MONJEA GORA ETA MONJEA BEHERA... BETI MONJEA. JOKOAN DUGUNA HAIN GARRANTZIZKOA EZ BALITZ, PIKUTARA DENAK...
RASPUTIN KAPITAINA EZ DUK ERGELA, BAINA. ZUEK, IGO EZAZUE HONA...
HORI DUK, RASPUTIN! EGUNEN BATEAN GOGOAN IZANGO DIAT HAU!
NOLATAN GALDU DUK ONTZIA? ZER EGINGO DUK ORAIN?
EMADAK EDATEKOA!
AIZAK, CORTO. HAU NIRE ONTZIA DUK ETA HEMEN NERONEK AGINTZEN DIAT. ORAIN, JAITSI GAITEZEN BEHERA ETA KONTATUKO DIDAK...
BERAZ, EZ DIDAK ESAN NAHI? MONJEARI EZ ZIOK BATERE GRAZIARIK EGINGO ITSASONTZIA GALDU IZANAK... ZER DELA ETA MATXINATU DIRA?
KONTRAMAISUAREN ARREBARI ASPALDI EMANA NIOAN EZKON-HITZA... TIRA, HORI AITZAKIA IZAN DUK. ARMATEGI TXIKI BAT ZEGOAN ETA HORIXE IZAN DUK JOMUGA. FUSIL HORIEKIN PIRATERIAN ESKALA TXIKIAN ARITZEKO MODUA DITEK. GAINERAKOA EZ DUK HARRITZEKOA. EDERKI IKASI DITEK GUGANDIK!
8


ONGI... AHALEGINA EGINGO DIAGU NOLA EDO HALA MOLDATZEKO.
VON SPEEKEREN BERRIRIK, BAI?
EZ? ORDUAN GARAIZ EGONGO GAITUK BERRI ONA EMATEKO...
HOLANDAKO ONTZIA IKATZEZ MUKURU ZEGOK...
BAI!!
PRIMERAN ORDAINDUKO ZIGUTEK! ALEMANIAK IKATZA BEHAR DIK. ETA ASKOZ GEHIAGO BEHARKO DIK OZEANO BAREKO BASE GUZTIAK ALIATUEN ESKU ERORTZEN DIRENEAN.
KORTSO-AGIRIAREKIN ARITUKO DITUK GERRAN.
GERRA HAU BUKATUTAKOAN...
...BATAK ZEIN BESTEAK IRABAZI, ABERASTU EGINGO GAITUK!
MONJEA BAT ETORTZEN BADA, NOSKI...
ETA ZER DELA ETA EZ DA BAT ETORRIKO?
EZ EZAK AHAZTU, EGONGO DEN URRE MORDOAREKIN NABABEN GISA BIZIKO GAITUK SEKULA GUZTIRAKO. HAMAR ZATI EGINDA ERE, ETA HIRU BESTERIK EZ GAITUK. GAINERA KASKOAN BURUA DIAGU, EZTA?
AURKI HOLANDAKO ZAMAONTZIA AURKITUKO DIAGU...
BAINA, ZERTAN ARI DA HAU HEMEN?... NOR HAIZ?
NI, NI... PANDORA GROOVESNORE NAIZ, JAUNA...



PANDORA GROOVESNORE... HARA! SYDNEYKO ARMADORE HANDIAREN, TADDEOREN ALABA. ETA NORK UBELDU DIN BEGIA?
ZURE LAGUN KAPITAINAK!
LAGUNA? HITZ POTOLOA DUN HORI. ZER IRUDITZEN, RAS?
KAPITAINA ETA BIOK EZ GAITUN LAGUN-LAGUNAK, BAINA INTERES KOMUN BATZUK DITINAGU...
ORAINO KONORTERIK GABE DAGOEN MUTIKO BATEKIN JASO NIAN HAU. JITOAN ZEBILTZAAN URAKANAREN ONDOREN...
EI, RASPUTIN KAPITAINA! ITSASONTZI HANDIA!
UF!
BEHARBADA ITXOITEN ARI GAREN ONTZIA IZANGO DA, EZTA, KAPITAIN?
HALA BEHAR LIKEK, GOIZ SAMAR IRITSI GAITUK, BAINA.
ZER, RAS? HORI IZANGO AL DA?
JAKINA, HERENEGUN ATZEMAN NIAN SUVARA IGORRITAKO MEZUA ETA BIDE-ORRIA EMATEN ZIAN BERTAN.
CORTO, PRESTATU GIZONAK ITSASONTZIA ATZEMATEKO.
ONDO, RAS!
HOLANDAKO ITSASONTZIA GERTURATZEN DA RASPUTIN KAPITAINAREN KATAMARANA DAGOEN ALDERA...
UTZIKO ZIGUTEK ONTZIRA IGOTZEN, PATRUILA INGELES BAT GARELAKOAN... GERO, ONTZIA KONTROLPEAN HARTU ETA IKUSIKO DIAGU ZER EGIN TRIPULAZIOAREKIN.
RASPUTIN KAPITAINA, ZEIN DEN EDERRA ITSASOA!


FIJI UHARTEETAKO KATAMARAN BAT DA, JAUNA!
FIJIKOA? BAINA HORI TOKITAN ZEGOK.
BEHARBADA URAKANAREN ONDORENA IZANGO DUK, APARTE SAMAR ZEUDEK HAIEN UHARTEETATIK.
GERTURATU GAITEZEN, LAGUNTZA BEHAR BADUTE ERE...
TURUO, HI EZ AL HAIZ FIJIKOA? NOLA LITEKE ITSASONTZI HAU HEMEN EGOTEA?
HARRITZEKOA! EZ DA GURE ONTZIEN ITSASBIDEA. GURE JENDEAK EKIALDE ETA HEGOALDERAKO JOERA DU...
SEKULA EZ DA URRUTIRATZEN HOLA, MENDEBALDERANTZ... EZ DAKIT.
SEINALEAK EGITEN ARI DITUK. BANDERA BAT ALTXATU DITEK.
BANDERA BAT? NOIZ HASI DIRA, BA, BASATIOK ITSAS KODEA BETETZEN?
INGALATERRAKO BANDERA BAT?
OFIZIAL ZURI BAT ZEGOK MARINEL BELTZEN ONDOAN.
INGALATERRAKO PATRUILA BAT FIJIKO KATAMARAN BATEAN?!! ALMIRANTEGOAK EZ ZIAN HAIN XUHURRA IZAN BEHAR, PATRUILA-ONTZI BAT EMAN BEHARKO ZIEAN SIKIERA. EGIN DIEZAIEGUN GONBIT ONTZIRA IGOTZEKO.
EZ DAKIT, BA, SUSMO TXARRA HARTZEN DIOT... EZ DUT ONTZI HORI BATERE GUSTUKO.


ESKERRIK ASKO, KAPITAIN!
TIRA, GEHIEGI TEMATZEN HAIZ SINESKERIEKIN, VAN HERDERN... EGUN ON, KOMANDANTE, IGO NAHI AL DUZU ONTZIRA?
RASPUTIN KAPITAINA NAUZU, ETA ITSAS ARMADA INPERIALAREN BAIMENA DUT. HONENBESTEZ, JABETU EGITEN NAIZ ONTZIAZ!
BARKATU... ONDO ULERTU AL DUT?
IKATZ-KARGA BAT DARAMAZU BRITAINIAR ITSAS ARMADARENTZAT. NIRE GOBERNUAK BAHITU EGINGO DU, ETA ONTZIA ETA GARRAIOAN DARAMAN GUZTIA ERE BAI.
BAINA EROTU AL ZARA?... JAITSI NIRE ONTZITIK SEGITUAN. ORAINDIK EZ DUTE GERRA-DEKLARAZIORIK EGIN ETA EZ DUZU INOLAKO ESKUBIDERIK...
ETA GAINERA UNIFORME INGELESA DARAMAZU, BANDERA INGELESA JASO DUZU... BERAZ, HAU PIRATERIA-EKINTZA BAT DA.
HORIXE ZARETE, PIRATAK...
NIK EZ DUT ONIK IZANGO HARIK ETA...
BANG!
BATEN BATEK BUKATU NAHI AL DU KAPITAINAREN MODUAN?
HOBE DUGU ESATEN DUENA BETETZEA, VAN HERDERN...
ZITAL ALAENA, HIL EGIN DUZU...
HUGO PRATT
E! ZER DA HAU? TIRO BAT ENTZUN DIAT!
MILA DEABRU, RASPUTIN! ZER BEHARRIK HUEN HILTZEKO?
EZ AHANTZI HEMEN NERONEK AGINTZEN DUDALA...


BETIKO HILTZAILE MADARIKATUA HAIZ! KONTROLPEAN DIAGU ONTZIA! EZ HUEN KOMANDANTEA HIL BEHAR!
EZ DIAT GOGORIK HIREKIN EZTABAIDATZEKO. HEMEN GOGOAK EMATEN DIDANA EGITEN DIAT!
A, BAI... BEHIN ETA BERRIZ ARI HAIZ ERREPIKATZEN. ETA ZER ESANGO DIOK MONJEARI UHARTERA BUELTATUTAKOAN?
HORIEK NIRE KONTUAK DITUK, HIRI BOST! BITARTEAN HAGO NIGANDIK URRUN, BESTELA DAMUTUKO HAIZ...
ERAMAN TRIPULAZIOA POPA ALDERA. TXALUPA BATEAN SARTUKO DITIAGU, URAREKIN, JANAREKIN ETA BELA BATEKIN. DENA ONDO BIDEAN, UHARTEREN BATERA IRITSIKO DITUK...
SEGI, ZURIAK!... JAITSI TXALUPARA...
ONENERA JOTA EGUN GUTXI BARRU MALAITARA IRITS GINTEZKE...
ZENBAT ETA BIZKORRAGO ABIATU ONTZI HONETATIK, HAINBAT HOBE DENONTZAT. LASTIMA KAPITAINA... EUTSI GOIARI, GAZTEOK.
ERRIA TXIKOTA!
NON DAUDE JAN-EDANAK?... EZ DAGO URIK, EZ JATEKORIK! ZERTAN ARI ZARETE?...
JOANGO ZARETEN TOKIAN, JATEKO BEHARRIK EZ DAGO... BIDAIA ON... INFERNURA!!
CRACK!
CRACK!
CRACK!
CRACK!


ORAIN BERRIZ ZER DUGU? EZ OTE DA IZANGO...
RASPUTIN!!
MADARIKATUA! DENAK HIL DITUK... BAINA ORAINGOAN BIDALI EGINGO HAUT HAIEI LAGUN EGITERA...
BAINA... EZ AL DUK ULERTZEN, CORTO? EGIN BEHARRA GENIAN. MUNTA HANDIKO KONTUAK ZEUDEK JOKOAN...
ALFERRIK ARI HAIZ HIZKETAN. ORAINGOAN EZ DUK HIREA EGINGO...
UF!
SOCK!
LO EGONGO DA PUSKA BATERAKO, RASPUTIN KAPITAINA!
LOTU BILURREZ... IRATZARRITAKOAN, EMAN PALA BAT ETA JARRI IKATZA BOTATZEN GALDARARA!
TXALUPA HONDORA DOA ETA MARRAZOEK BAZKA EDERRA DUTE... ITSAS FESTA... ITSAS FESTA, ALELUIA!!!...